

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2008KO OTSAILA


Euskal AEko industri jarduera %1,0ko urte arteko tasaz hazi zen 2008ko otsailean

Aurreko hilaren aldean, 2008ko urtarrilaren aldean, %-0,3 murriztu zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2008ko urtarrilean %1,0 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneotan, 2007ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %-0,3 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2008ko urtarrilarekin alderatuta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2008ko urtarril-otsaileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen araberrako bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2008ko otsaileko indizearen bilakaera hazi egin da Tarteko ondasunetan (%1,3), eta Energiaren (%5,3) 2007ko otsailaren aldean. Ekipoko ondasunek %-0,4ko jaitsiera izan dute; Kontsumoko ondasunek %-2,6, Kontsumo iraunkorreko ondasunen jaitsieragatik (%-11,8), Ez-iraunkorrekoak %2,4 igo baitziren.

2008ko urtarrilaren aldean, 2008ko otsailean hil arteko aldaketak positiboak izan dira Ekipamendu ondasunen (%0,2) eta Kontsumoko ondasunen (%0,7) sektore nagusietan; kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%1,3) izandako igoerak eraginda, kontsumo-ondasun iraunkorrek %-0,6 jaitsi

baitziren; Energiak %-1,5eko jaitsiera izan zuen, eta bitarteko ondasunek %-0,3koa, lehengo urtarilaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera Industri Produkzioaren Indizeak bilakaera positiboa izan du Bizkaian(%3,2); Araban %-0,1eko jaitsiera dago eta Gipuzkoan %-0,8koa

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2008ko otsailekoak, 2008ko urtarilaren aldean) bilakaera ezberdinak izan dira aipatu aldiak: Araban %0,4 hazi da eta Bizkaian %0,1; Gipuzkoan behera egin du (%-1,2).

Taula: 2008ko OTSAILA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

	Ots08 / Ots07	At / At-1 (1)	Ots08 / Urt08	Urt08 / Abe07
Indize orokorra: Euskal AE	1,0	1,4	-0,3	0,6
Araba	-0,1	-0,5	0,4	1,3
Bizkaia	3,2	2,8	0,1	-0,3
Gipuzkoa	-0,8	0,8	-1,2	1,1
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-2,6	-3,7	0,7	-5,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-11,8	-11,5	-0,6	-11,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	2,4	-0,2	1,3	-2,4
Ekipo-ondasunak	-0,4	0,4	0,2	1,1
Bitarteko ondasunak	1,3	2,2	-0,3	0,1
Energia	5,3	4,6	-1,5	9,8

(1) "t" urteko otsailetik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, "t-1" urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp